

ETORKIZUNeko IRAKASLEEN PROFIL LINGUISTIKOA ETA EUSKARAREKIKO HARREMANA

GASTEIZKO HEZKUNTZA FAKULTATEAN JASOTAKO DATUEN ANALISIA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Azpiri Arriaga, Alain

ZUZENDARIA: Elizalde Estenaga, Amaia

2020-2021 ikasturtea

LABURPENA

Hezkuntza eta euskara, beraien banakotasunean, betidanik izan dira aztertuak euskalgintzaren eta soziolinguistikaren esparruan, eta jendartean betidanik eztabaidatu da bi gai horien inguruan. Gaur egun, adostasuna dago Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzak euskalduna izan behar duelako ustean, euskara maila zehatz bat eskaini behar dela eta haurrak modu horretara hezi behar direla, elebidun edo eleanitz izan daitezten. Alabaina, egoera batzuetan, hezkuntzan dauden irakasleen profil linguistikoa, euskara mailari dagokionez, ez da behar bezain ona izaten. Horrek ondorio txarrak ekar ditzake haurren garapen prozesurako, ez baitute input egokia jasotzen. Errealitate horrekiko gerturatze soziolinguistiko bat egiteko asmoz, ikerketa honen helburu nagusia etorkizuneko irakasleen eta euskararen artean zein harreman dagoen ezagutzea izan da. Irakaslegaiaren profilak ezagutu eta ikertuko dira, hala nola, beraien hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-ideologia, hizkuntza-esparruak, hizkuntza-tituluak, euskara maila eta abar. Horretarako zenbait galderez osaturiko inkesta bat sortu da eta bete dutenak Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusean ikasten duten Haur Hezkuntzako Graduak eta Lehen Hezkuntzako Graduak 4. mailako ikasleak izan dira. Inkesta horri esker, datu zehatzak atera dira eta, azkenik, zenbait konklusiotara heldu da ikerketa.

RESUMEN

La educación y el euskera, en su individualidad, siempre han sido analizados en el ámbito de la lingüística, y se ha debatido en la sociedad desde siempre sobre estos dos temas. En la actualidad existe consenso en la idea de que la educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco debe ser vasco, con el objetivo de ofrecer un nivel concreto de euskera y que los niños y niñas se eduquen de esta manera, sean bilingües o plurilingües. Sin embargo, hay situaciones en las que el perfil lingüístico del profesorado, en lo que respecta al nivel de euskera, no suele ser lo suficientemente bueno. Esto puede tener consecuencias negativas para el proceso de desarrollo infantil, ya que no reciben el input adecuado. Con el objetivo de realizar un acercamiento sociolingüístico a esta realidad, el objetivo principal de esta investigación ha sido conocer la relación existente entre los futuros profesores y el euskera. De ese modo, se conocerán y se investigarán los perfiles de los profesores, tales como sus costumbres lingüísticas, ideología lingüística, ámbitos lingüísticos, títulos lingüísticos, nivel de euskera, etc. Para ello se ha creado una encuesta de preguntas que han sido cumplimentadas por los alumnos de 4º de Grado en Educación Infantil y 4º de Grado en Educación Primaria que estudian en el Campus de Álava de la Universidad del País Vasco. Mediante esta encuesta se han extraído datos concretos y finalmente el estudio ha llegado a algunas conclusiones.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. SOZIOLINGUISTIKAREN INGURUKO HAINBAT KONTZEPTU.....	6
3.2. EUSKARAREN HISTORIA.....	8
3.3. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA.....	11
3.4. EUSKARA ETA GAZTEAK.....	13
3.5. EUSKARA ETA HEZKUNTZA.....	14
3.6. ETORKIZUNeko IRAKASLEEN HIZKUNTZA-OHITURAK.....	15
4. HELBURUAK	15
5. METODOA	16
5.1. ERABILITAKO TRESNA	16
5.2. PARTEHARTZAILEAK	17
5.3. PROZEDURA	17
6. EMAITZAK	17
1. BLOKEA.....	17
2. BLOKEA.....	21
3. BLOKEA.....	28
7. ONDORIOAK	39
8. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK	40
9. BIBLIOGRAFIA	41
10. ERANSKINAK	42
10.1. GALDETEGIA.....	42

1. SARRERA

Euskararen inguruan hitz egiterako orduan, betidanik izan da kezka handi bat bere etorkizuna. Askotan hausnartzen da gai horren inguruan, neurketak egiten dira, ikerketak, emaitzak analizatu, espektatibak jarri eta abar. Orokorrean, etorkizunari begira espekulatzea gustatzen zaion jendarte batean bizi gara.

Hezkuntzaren inguruan ere makina bat aldiz hausnartu izan da, edukien inguruan, metodologiaren inguruan, baloreen inguruan eta abar. Gai asko plazaratzen dira mahai gainera, ondoren, hauei buruz eztabaidatu eta konklusio batera iristen saiatu. Baina askotan jendarteak gai berdinei bueltak eta bueltak eman bitartean, hausnartzeko eta eztabaidatzeko gai askok ihes egiten dute.

Esan bezala, askotan hitz egiten da euskararen inguruan, baita hezkuntzaren inguruan ere. Baina sartu al dira inoiz euskara eta hezkuntza kutxa berean? Arestian aipatu bezala, hezkuntzaren inguruan gai asko plazaratzen dira, baina beste batzuk ihes egiten dute ez zaielako izan beharko lukeen garrantzia ematen. Gai horietako bat euskarak hezkuntzan duen etorkizuna da, eta horretan zentratu da ikerketa hau. Zehazkiago, etorkizuneko irakasleen edota irakaslegaien eta euskararen arteko harremanetan ipintzen du fokua lan honek, soziolinguistikaren jakintza arloan kokatuz, beraz.

Lan honen xede nagusia etorkizuneko irakasleen eta euskararen artean zein harreman dagoen ezagutzea, ikertzea eta analizatzea izango da. Beraz, ikerketa soziolinguistikoko hau kualitatiboa da hein handi batean, datu kuantitatiboak ere bildu diren arren. Helburua, beraz, irakaslegaien profilak ezagutzea da, hala nola, beraien hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-ideologia, hizkuntza-esparruak, hizkuntza-tituluak, euskara maila eta abar. Ondoren, ezagupen horiek analizatu eta ondorioztatu eta beraien inguruan hausnartuko da.

Horretarako, galdetegi bat diseinatu da lagin zehatz eta konkretu batentzako. Lagin hori Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusean dauden Haur Hezkuntzako Graduoko eta Lehen Hezkuntzako Graduoko 4. mailako ikasleak izango dira, izan ere, teoriarik beraien dira etorkizun hurbil-ertainean eskoletan izango diren irakasleak. Galdetegia bete ostean, datuak grafiketan jaso eta analizatu egin dira, hausnarketarako bide ematen duten emaitza interesgarri zenbait lortu direlarik, bai irakaslegaien euskararekiko profilari begira, baita arlo horretan jasotzen duten prestakuntzari buruzkoa ere.

2. JUSTIFIKAZIOA

Aurretik azaldu bezala, irakaslegaien eta euskararen arteko harremanetan zentratuko edota enfokatuko da ikerketa hau. Gai hau hautatzearen zergatia, zenbait arrazoietan oinarritzen da. Hasteko, interes pertsonaletatik abiatuta egin da ikerketa hau. Inguruan identifikatutako euskaraz hitz egiteko joeren edota ohituren gabezia gain, euskararen orainarekiko eta etorkizunarekiko sentsibilizazioa eta afektibotasuna izan dira funtsezko motibazioetako batzuk. Horrez gain, nahiz eta euskararena hezkuntza munduan beti pil-pilean dagoen gai bat izan, beste gai batzuk plazaratzerakoan, esaterako hezkidetzak edota inklusioa, ohikoa da gai hori bigarren plano batera pasatzea. Aipatutako bi gai horiek ezinbestekoak dira hezkuntzan, baita jendartean ere, baina testuinguru euskaldun batez ari garela, euskara ere plano edota maila berdinean ezarri beharko litzateke, izan ere euskararekiko eta euskal kulturarekiko sentsibilitatea erabat lotuta baitago inklusioarekin eta parekidetasunarekin, oro har. Horren ondorioz, benetan duen edo izan beharko lukeen inportantzia nabarmentzeko egin da ikerketa hau.

Aurrekoarekin lotuta, Haur Hezkuntzako curriculumean (237/2015 dekretua) eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean (236/2015 dekretua) argi eta garbi ikusten da maila teoriko-ofizialean euskarari eta euskal kulturari berebiziko garrantzia ematen zaiola. Baina teoria eta praktika behatuz eta analizatuz, alde handia antzematen da gai honi dagokionez. Praktikaldietan behatutako errealitateak eta ikasle gisa izandako esperientziatik, irakasle batzuek ez dutela euskara maila hori ikusi da, ezta ikastetxetik kanpo euskaraz hitz egiteko ohiturarik ere. Horregatik, haurrek jasotzen duten inputa ez da guztiz egokia, ez behintzat euskararen ezagutza eta jabetzarako. Horren ondorioz, gaur egun alderdi hori kontuan hartzekoa bada ere, etorkizunean zer nolako bilakaera izango duen jakiteak ere bultzatu du ikerketa hau. Horrez gain, ondoren marko teorikoan ikusiko den bezala, Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Unibertsitateko fakultate desberdinetan egin zuen ikerketen emaitzei erreparatuz, etorkizuneko ikasleen euskara erabilera ez da altua.

Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta gaur egungo Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleen edo, bestela esanda, etorkizuneko Euskal Herriko irakasleen euskara maila eta erabileraren inguruan hausnartuz, gabezia handiak antzematen dira hainbat kasutan; hiztegia, gramatika, gazteleraz hitz egiteko joera eta abar. Hori dela eta, haurrenganako izango duten euskara transmisio kaskarrak eta horrek hezkuntza prozesuan ekarriko dizkien oztopoak aurreikusiz, ikerketa hau egitea erabaki da, maila eta jarrera linguistiko horiek ageri dituzten ikasleek profil jakin bati erantzuten ote dioten ikuste aldera.

3. MARKO TEORIKOA

Ikerketarekin hasi aurretik, ezinbestekoa da gaia azaltzea eta testuinguruan kokatzea. Horren ondorioz, atal honetan gaia testuinguratuko duen azalpen teorikoak ageri dira. Hasteko, soziolinguistikaren inguruko hainbat kontzeptu ageri dira. Ondoren, euskararen historia eta euskal hiztunen bilakaera historikoa jorratuko da. Jarraian, euskal soziolinguistika ageri da, teoriaren mamian sartzen hasteko. Horren ondoren, euskarak hezkuntzarekin eta gazteekin duen lotura dago azalduta. Eta azkenik, etorkizuneko irakasleen hizkuntza-ohiturak ageri dira, 2019ko abenduan, Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean EAEko fakultate desberdinetan testuinguru informaletako euskararen erabilera aztertu baitzuen.

3.1. SOZIOLINGUISTIKAREN INGURUKO HAINBAT KONTZEPTU

Soziolinguistikak gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreraginak aztertzen ditu. Bi soziolinguistika ezberdin bereiz daitezke: aztergai nagusia hizkuntza bera duena, bata, eta hizkuntza entitate sozial moduan hartzen duena, bestea. Lehenengoa hizkuntzalaritzatik hurbilago dago; bigarrena, aldiz, soziologiatik. Baina ikerlari askoren ustetan, benetako soziolinguistika aldakortasun linguistikoa, edota, hobeto esanda, hizkuntzaren aldagarritasuna da. Edozein hiztunek daki hizkuntza ez dela berdin erabiltzen, ahoskera, intonazioa, lexikoa eta abar aldatu egiten batira testuinguruaren arabera. (Zarraga, 2010).

Hizkera-komunitateak

Aurretik azaldutakoaz gain, hiztunek beraien burua eta besteena talde batean edo bestean kokatzen dute, hots, hizkera-komunitateetan. Komunitate hauek gutxienez hizkuntza bat partekatzen duten hiztunen multzoak dira. Hiztunek, hizkeraren bitartez, euren burua talde batean edo bestean kokatzen dute, euren nortasuna adierazten dute. Hiztun bera, ezagutza soziolinguistikoen ondorioz, komunitate bat baino gehiagoko partaide izan daiteke eta, ondorioz, aldaera ezberdinak erabili une bakoitzean (Coyos, 2010).

Hizkuntza-ukipena

Hizkuntza-komunitate hauek, ordea, ez dira isolaturik bizi. Normalean elkarrengandik oso hurbil eta harremanduta egon ohi dira. Egia esan, oso hedatuta dago “nazio bat, hizkuntza bat” esaera, baina errealitatean, praktikan ikusteko garaian, ez da horrela izaten. Nazio askotan daude elebitasun edota eleaniztasun kasuak, eta egoera honi hizkuntza-ukipena deitzen zaio. Aurreko horrek, bi komunitateen arteko hizkuntza

gatazka sortzen du maiz. Egoera hauetan hiru ondorio mota bereiz daitezke (Coyos, 2010):

- **Hiztunengan:** Bi hiztun-komunitate harremanetan jartzean, hiztunetako batzuek bi hizkuntzen ezagutza eskuratzen dute. Pertsona horiek elebidunak dira, hau da, bi kodeak erabiltzeko gaitasuna dute. Elebitasunaren auzia aipagarria da, izan ere, batzuentzat bi hizkuntzatan naturaltasuna erakusten duen pertsona da elebiduna, beste batzuentzat, berriz, hizkuntza batekin natural jarduten duen eta bestearekin gutxieneko komunikazio gaitasuna duen pertsona ere elebiduna da. Horrez gain, globalizazio garai honetan, gizarte askoren errealitatea eleaniztasuna da (bi hizkuntza baino gehiagotan jardutea), horren ondorioz, elebitasunaren inguruko hainbat ikuspegi aldatu dira. Hizkuntza-aniztasuna mehatxu bezala ikusi beharrean, aukera moduan ikusten da gaur egun.
- **Hizkuntzan:** Bi hizkuntzen artean ukipena dagoenean, interferentziak gauzatzen dira bien artean, hala nola, morfologian, fonologian, sintaxian eta semantikan. Hasteko, hiztun horiek ikasitako hizkuntzaren ezaugarriak beste hizkuntzara transferitu ohi dituzte, horren ondorioz, bere kodean elementu berriak agertzen hasten dira. Normalean, hizkuntza gutxituak jasotzen ditu hizkuntza nagusiaren elementuak, baina alderantziz ere izan daiteke. Horrez gain, oso ohikoa da alboko hizkuntzaren hitzak inportatzea, hau da, beste hizkuntzako hitz mailegatuak erabiltzea. Maileguak hartzeko arrazoirik garrantzitsuena objektu berriei izena ematea izaten da. Azkenik, kodeen arteko alternantzia ere sarritan ematen da. Solasaldiaren hari nagusia hizkuntza batean eginda ere, beste hizkuntzaren esaldiak etengabe tartekatzean datza.
- **Gizartean:** Hiztun-taldeen arteko harremanak ez dira ia inoiz berdintasunean oinarritzen. Taldeetako bat botere-egoeran egoten da eta bestea menpean. Egoera horietan hizkuntza batek nagusitasun politikoa izaten du, goi-mailako funtzioak betetzeko eta hizkuntza ofiziala izateko. Beste hizkuntzak, gutxituak, erabilera-esparruak mugatuta ditu eta, gehienetan, esparru informaletarako erabiltzen da. Funtzioen banaketari diglosia deitzen zaio, Charles A. Fergusonek (1959) sortutako kontzeptua da. Diglosia egoeran, jendarte jakin bateko ez da orekatua, hizkuntza bat goi-mailakoa izango da eta bestea, berriz, behe-mailakoa. Dena den, hizkuntza biak berdintasunean egotea ez da ezinezkoa, horri elebitasun orekatua deitzen zaio, baina normalean ez da ematen, funtzioen banaketa ez baita parekatua izaten. Hizkuntzen erabileraren errealitateak erakusten digu egiazko elebitasun orekatua utopikotzat hartzekoa dela, aparteko talentudun poliglota batzuen kasuan izan ezik.

Faktore sozio-geografikoa

Oinarri sozio-geografikoa hizkera-komunitateak baldintzatzen dituen faktore bat da. Hizkuntza-komunitatea osatzeak eremu geografiko komun bat partekatzea inplikatzeko du. Era berean, hizkuntza-komunitatea entitate geografiko-politiko bat osatuko dute, hizkuntza bera konpartitzen duten pertsonak (Hudson, 1981). Hizkera-komunitate hauek zabalagoak edota handiagoak, edo, zarratuagoak edota txikiagoak izan daitezke kokapen geografikoaren arabera.

Faktore honek, funts demografikoarekin lotura estua du, izan ere kokapen geografiko batek demografia zehatz bat dauka. Honekin esan nahi dena zera da, guztia zentralizatuta eta bilduta dagoen eta biztanle asko dituen hiri bateko, eta metropoli horretatik urrun dagoen, bizimodu desberdin bat dagoen eta biztanle gutxi dituen herri bateko hizkera-komunitateak eta beraien ezaugarriak oso desberdinak direla.

Hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-ideologiak

Gizakiak helburuak, ametsak eta desioak ditu. Horiek, ikuspegi edo hautemateekin batera, motibazioen eragileak dira. Motibazioek jarduteko indarra eta norabidea ematen dituzte eta helburu bat lortzeko arrazoiek motibazioaren izaera markatuko dute (Zarraga, 2010).

Hizkuntzari dagokionez, motibazioak bi multzo nagusitan bereizten dira: integratzaileak eta instrumentalak. Lehenengoen oinarrian hiztun-taldearen partaide izateko edo partaideen antza hartzeko nahia dago. Sarritan sentimendu identitarioak bultzatuta, motibazio integratzailea duen hiztunak hizkuntza ikasteko edo erabiltzeko berezko motibazioa izaten du. Motibazio instrumentala duenak, berriz, hizkuntza helburu jakin bat lortzeko bilatzen du. Horrela, hizkuntzaren bitartez talde horretako partaideekin tratu komertzialak egitea, lantokian gora egitea, diru gehiago irabaztea... motibazio instrumentalaren adibide garbiak dira. Hizkuntza arrakastarekin, bizi-kalitatearekin, gizartean gora egiteko aukerekin eta abarrekin lotzeak motibazio instrumentala eragingo du (Joly eta Uranga, 2010).

3.2. EUSKARAREN HISTORIA

Euskara Europako hizkuntzarik zaharrena dela uste da, 8.000 urte luze dituela. Gaur egungo testuinguruan kokatu eta horren inguruan hitz egin ahal izateko, beharrezkoa da aurretik bere memoria historikoan murgiltzea. Baina memoria historiko guztia hain parrafo gutxitan azaltzea ezinezkoa izango da, horregatik, Aro Garaikidetik hasita azalduko da bere historia eta eboluzioa, gaur egungo testuinguruan kokatzeko nahikoa baita (Zarraga, 2010).

Jasotako zapalkuntzak

Aro Garaikidearen hastapenetatik euskara zapaldua izaten hasi zen, nazionalismo edo, hobeto esanda, nazionalismo itsuaren, gerren edota faktore demografikoen ondorioz. Frantziako Iraultzaren ostean, euskarak, beste hizkuntza gutxituen antzera, zapalketa eta bazterketa gogorra jasan zuen Iparraldean, frantsesa ez ziren beste hizkuntzak baztertuta geratu baitziren.

XIX. mendean, Gerra Karlisten ondorioz, geografikoki nahiz maila sozialean atzera egin zuen nabarmen. Foruen desagertzea botere politikoaren galera ekarri zuen eta, ondorioz, geografikoki zein gizarte mailan, euskaldunon hizkuntzak izandako atzerapenik handienetariko bat pairatu zuen.

Bestalde XX. mende hasieran, industrializazioak eta ondoriozko immigrazioak izugarrizko eragina izan zuten euskararen atzerapenean, gaztelaniazko hitzun asko etorri baitziren Euskal Herrira.

Beranduago, oraindik ere gogorragoak izan ziren zapalkuntzak. 1923tik 1964ra, hasieran, Alfontso XIII. eta Primo de Riverarekin, eta ondoren, Francoren diktadurarekin euskara ia esparru guztietan debekatu eta zentsuratu zen. Hezkuntzan, instituzioetan, erregistro zibilean, literaturan, musikan, irratietan eta beste hainbatetan. Gainera, horren aurka aldarrikatzen zen jendeak zigor handi eta bortitzak jasan behar izaten zituen.

Hazkundera

Diktaduraren azkenetan, eta batez ere amaitu ostean, euskarak hazkunde eta altxamendu nabarmena jasan zuen. 1960ko hamarkadan mugimendu politikoa eta kulturala asko indartu ziren, besteak beste, ikastolak sortu ziren, helduentzako gau eskolak eta euskal abeslariak eta artistak indar handiz agertu ziren. Oro har, Euskal Herri batu eta independente baten aldeko ideiak hedatu ziren. Horrek guztiak, euskara tresna gisa erabat handitu zuen, eta gainera, 1968an Euskara Batua sortu zen.

1970eko hamarkadan, Euskal Soziolinguistikaren hastapenak heldu ziren. Hainbat ikerketa egin ziren, hala nola, herri askotako diagnostikoak eta arlo jakinei bideratutako plangintzak. Bestalde, 1979an Euskal Autonomia Erkidegoko Araudiak euskara eta gaztelera ezarri zituen EAEko hizkuntza ofizial gisa.

1980ko hamarkadan, "Txepetx"-ek (1984) soziolinguistika egituratu berriaren hausnarketak Euskal Herrira ekarri eta euskararen errealitatera egokitu zituen "*Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística*" lanaren eskutik.. Euskarak katalana eta galegoarekin harreman estua zuela defendatzen zuen; interes eta helburu partekatuak izatearen eta aldatzen ari zen errealitate soziopolitikoaren protagonista

izatearen ondorioz. Horrek jendearengan eragin zuzena izan zuen, euskal nazionalismoa eta independente izateko nahia oraindik gehiago hedatuz. 1982an, Nafarroan, "Amejoramiento del Fuero de Navarra" araudiaren bitartez, euskararen eta gazteleraren ofizialtasuna onartu zen eremu euskaldun eta mistoetan. Horrez gain, 1983an Elebitasunaren Dekretua jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak, horren ondorioz, EAEn haurrak euskaraz edota euskara (arlotan bezala) ikasten hasi ziren. Gainera, 1985 Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea (AEK) sortu zen, euskaraz alfabetatu gabeko edota ez zekien jendeak euskara ikas zezan.

1990ko hamarkadan, hizkuntzaren normalizazioan ezagutzatik erabilerarako pausoa eman beharra azpimarratzen hasi zen. Horren ondorioz, ondorengo urteetan emaitza ugari etorri ziren, hala nola, Euskaldunon Egunkaria (1990), BAT Soziolinguistika aldizkaria (1990) edota Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) (1991). Euskararen eta euskarazko kulturaren egoerari buruz kezka beteterik irakurketa egin ostean, gogoeta, eragin soziala eta plangintza ardatz izango zituen prozesua abiaraztea erabaki zen. Horren ondorioz, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu zen, Hizkuntzaren Normalizaziorako Plan Estrategikoaren gidaritza aurrera eramateko. Era berean, Euskararen Aholku Batzordeak bultzatuta, 1999an, Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zuen. EBPN euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea helburu duen plangintza estrategikoa da. Funtsean, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea du xede. Hiru lan-esparru (edo helburu estrategiko) ezartzen ditu (Larrea eta Bilbao, 2010):

- Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea.
- Euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea.
- Euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea.

2000ko hamarkadatik gaur egunera arte, globalizazioak aurrerapauso ikaragarriak ekarri ditu, besteak beste, ekonomian, politikan, teknologian, garraioan eta abar. Horren ondorioz, aldaketa ikaragarriak egon dira munduan, eta nola ez, Euskal Herrian. Internet oinarritzko tresna eta leiho bihurtu da hizkuntzen panoraman. Zentzu horretan, euskarak ere sarean bere lekua izan dezan, ahalegin handiak egin dira, hala nola erakundeetatik, gizarte eragile eta enpresetatik. Horrez gain, egoera guzti honek ingelesaren gailentzea ekarri du munduko txoko guztietara. Gainera, horrekin batera, immigrazioa ere areagotu egin da. Horren ondorioz, Euskal Herrian mehatxu horiei aurre egiteko neurriak jartzeko beharra ageri da. 2000ko hamarkadan asko idatzi da etorkinak euskarara erakartzeko egin beharreko ahaleginez, ingelesak irakaskuntzan izan behar

duen tokiaz eta, esan bezala, Interneten nahiz teknologia berrietan euskarak izan behar duen presentziaren garrantziaz.

Euskal hiztunen bilakaerak belaunaldiz belaunaldi gora egiten dihardu gaur egunera arte. 1981etik aurrera hasi zen Euskal Herrian Inkesta Soziolinguistikoak egiten. Inkesta hauek 16 urtetik gorako euskal herritarren hizkuntza-ohiturak ezagutzeko egin izan dira. Lau hamarkada hauetan, esan bezala, euskal hiztunen kopuruak gorakada nabarmena jaso du. Esan beharra dago, 1981ean eta 1986an egin ziren Inkesta Soziolinguistikoetan soilik EAEko datuak ageri direla. Horren ondorioz, hona hemen Eustat (Euskal Estatistika Erakundea) eta Eusko Jaurlaritzako datuek diotenez, 1991tik gaur egunera arte egin diren inkesten emaitzak:

URTEA	BIZTANLERIA			
	GUZTIRA	EUSKALDUNAK	EUSKALDUN HARTZAILEAK	ERDALDUNAK
1991	2.371.078	%22,29	%7,71	%70,00
1996	2.428.100	%20,66	%11,66	%67,66
2001	2.497.016	%25,39	%10,55	%64,06
2006	2.589.600	%25,70	%15,40	%58,90
2011	2.648.997	%26,96	%14,52	%58,52
2016	2.647.422	%28,39	%16,41	%55,21

3.3. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA

Aurretik azaldutako teoria soziolinguistiko nahiz historikoa uztartuz gero, argi eta garbi dago Euskal Herriko testuinguruan hizkuntza-ukipena presente dagoela aspaldidanik, Hego Euskal Herrian gaztelarekin eta Ipar Euskal Herrian frantsesarekin. Era berean, botere-harremani dagokienez, esan liteke euskara izan dela Aro Garaikidetik aurrera hizkuntza menperatua. Errealitate orokor horrek euskararen panorama soziolinguistikoak idiosinkrasia berezi bat izatea dakar.

Euskaldun motak

Euskara eta erdara (gaztelera eta frantsesa) kontuan hartuz, euskaldun motak zehaztu daitezke. Hasteko, euskaldun zaharrak ditugu, beraien lehen hizkuntza edota ama-hizkuntza euskara da, eta ondo ulertu eta hitz egiten dute euskaraz. Horrez gain, euskaldun berriak ditugu, beraienzat euskara bigarren hizkuntza da, eta ondo ulertu eta hitz egiten dute, nahiz eta hobeto moldatu erdaraz. Azkenik, euskaldun hartzaileak ditugu, beraien ama hizkuntza, euskaldun berrien bezala, erdara da. Trebetasun

hartzaileak dituzte, hau da, gai dira euskaraz ulertu eta irakurtzeko, baina ez dituzte trebetasun sortzaileak, euskaraz hitz egiteko eta idazteko balio dutenak (Coyos, 2010).

Euskaldun elebakarrak, elebidunak eta erdaldunak

Gaur egun, Euskal Herriko biztanleriaren hizkuntza- ezagutzari dagokionez, hiru taldetan sailkatu daitezke. Hasteko, euskaldun elebakarrak ditugu. Hauek oso gutxi dira, izan ere 2001etik aurrera egin diren inkesta soziolinguistikoetan ez dira ageri. Bestetik, euskaldun elebidunak ditugu, hauek gehienbat EAEko eta Nafarroako gazteak dira, nahiz eta zenbait heldu ere izan. Amaitzeko, erdaldun elebakarrak ditugu, gaur egun beraien dira presentzia gehien dutenak Euskal Herrian. Nahiz eta hori horrela izan, aipagarria da azken urteetan pixkanaka-pixkanaka euskaldun elebidunen kopurua handitzen doala (Coyos, 2010).

Eleaniztasuna Euskal Herrian

Historian zehar euskaldun batzuk eleanitzak izan dira. Batez ere, Ipar Euskal Herriko biztanle batzuk, izan ere euskara menperatzeaz gain, frantsesez eta gazteleraz hitz egiteko gaitasuna ere izan dute edota badute. Horrez gain, aurretik aipatutako gaur egungo globalizazioaren eraginez, nazioarteko harremanetan nagusi den hizkuntza daukagu ingelesa. Horren ondorioz, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren proiektuak eleaniztasunaren aldeko hautua egin du eta ikastetxe batzuk ingelesarekin benetan jarri dira buru-belarri ezinbesteko garrantzia esleituz (Coyos, 2010).

Euskara eta diglosia

Euskara gutxiengoaren hizkuntza bilakatu da denborarekin; gaztelania edo frantsesa, aldiz, kanpotik etorri izanik ere, gehiengoaren hizkuntzak bilakatu dira, funtzio eta esparru formalez gain, funtzio eta esparru informalak bereganatuz euskaldunek euskara galtzen zuten neurrian. Euskal Herrian euskarak funtzio guztiak betetzen ez dituzenez, erabateko diglosian dagoela esan daiteke. Esparru geografiko guztietan; EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, ageri da egoera diglosiko hori, ez maiztasun berdinean. Horrez gain, *noranzko bakarreko elebitasuna* dagoela esan daiteke, euskaldunak erdara ikastera behartuak direlako eta ez erdaldunak euskara ikastera (Coyos, 2010).

Ofizialtasuna

Estatu batzuetan hizkuntza ofizial bakar bat dago, beste batzuetan bi, eta beste batzuetan, berriz, bat baina bertako eskualde batzuetan estatuko hizkuntza ofizialaz gain, beste bat ere egon daiteke. Azken hau Euskal Herrian gertatzen da euskararekin.

Baina auzi hau ez da hain sinplea, izan ere euskara ez da Euskal Herri osoko hizkuntza ofiziala. EAEren kasuan, euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak 1982tik. Nafarroan, berriz, ofizialtasun hori partziala da, izan ere, soilik euskaldun eremuetan eta eremu mistoetan da euskara ofiziala, kasu honetan ere 1982tik. Gainontzeko eremuetan, gaztelania da soilik ofiziala. Ipar Euskal Herrian, berriz, frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra (Euskal Kultur Erakundea, 2021).

Faktore demogeografikoak

Euskaldun jendea, kopuruz, gutxiengoa da Euskal Herrian: biztanleen %26,96 elebidunak dira eta %14,52 elebidun hartzaileak, hots, euskaraz (ongi) hitz egin ez arren ulertzeko gai direnak (Eusko Jaurlaritzak, 2008). Gainera, sakabanaturik daude, hiri handietan bereziki, erdaldunak kopuruz eta sozio-kulturaz nagusi diren inguruetan. Orokorrean, euskaldunen kontzentrazio demografikoa ahula da.

Kokapen geografiko desberdinei erreparaturik, eta probintzietan oinarrituz, Gipuzkoa da euskaldun gehien dituen probintzia, %38a hain zuzen ere. Urola Behera, Deba Garaia eta Deba Behera, Goierri eta Tolosaldean hitz egiten da gehien. Bizkaiari erreparaturik, soilik %14,5ak egiten du euskaraz. Euskal hiztunen kontzentrazio handiena Arratia-Nerbioi, Busturialdea eta Lea-Artibain kokatzen da. Araban, berriz, %3,8koa da euskaraz hitz egiten duen biztanleria, gehienbat, Gorbeialdean egiten da. Nafarroan %11,72ak egiten du hitz, izan ere, gero eta hegoalderago joan gero eta euskaldun elebidun nahiz hartzaile gutxiago daude. Euskaraz batez ere, Iparrmendebaldeko Nafarroa hezeko ibarretan, Sakanan eta Pirinioetako ibarretan egiten da. Amaitzeko, Iparraldean %21,44ak egiten du hitz euskaraz, batez ere, Zuberoan eta Behe-Nafarroan daude hiztun gehien (Euskal Kultur Erakundea, 2021).

3.4. EUSKARA ETA GAZTEAK

Ez dago frogatu beharrik etorkizuna gaur egungo gaztez osatuta egongo dela, epe luzean bai behintzat. Horren ondorioz, hemendik urte batzuk barru goi mailako kargu politikoetan, ospitaleetan edota instituzioetan, oro har, esparru guztietan gaur egungo gazte hauek egongo dira.

Gazte hauek helduak direnean, ez dituzte beraien gaur egungo ohitura eta usadio guztiak transferituko. Hala eta guztiz ere, badira transferituko dituzten tresnak, esaterako, komunikazio tresna, hots, hizkuntza. Horregatik, ezinbestekoa da jakitea gazteen hizkuntza-ohiturak zeintzuk diren eta etorkizuneko jendartearen zer nolako presentzia izango duen.

Euskal Herriko gazteei (16-24) erreparaturik, 2016an egindako Ikerketa Soziolinguistikoa emaitza positiboak atera ziren aurreko urteetakoekin alderatuz. Euskal Herriko gazteen artean %55,42 euskaldunak dira, %15,98 euskaldun hartzaileak, eta %28,6 erdaldunak. Oraindik gehiago zehaztuz, EAeko gazteen artean %71,43 euskaldunak dira, %17,6 euskaldun hartzaileak, eta %10,97 erdaldunak. Nafarroaren kasuan, %25,84 dira euskaldunak, %12,24 euskaldun hartzaileak, eta %61,92 erdaldunak. Azkenik, Iparraldeari erreparaturik, %18,89 dira euskaldun gazteak, %13,82 hartzaileak, eta %67,3 erdaldunak (Eustat, 2021).

Esan bezala, gazteriaren artean aurreko urteetako emaitzekin alderatuz, euskal hiztun gehiago daude. Aurreko hori datu objektibo bat da, eta hori da errealitatea, baina ezin da soilik horretan geratu. Soziolinguistika Klusterrak honela dio:

“Euskararen egoerak arduratzen gaituenon aldetik, sarri jartzen da arreta gazteengan. Etorkizuneko gizartea osatuko dutela eta, euskararen normalkuntza prozesua bururaino eramango dutenak direla esaten da, ardura hori euren bizkar gainean jarriz. Horrela egin izan da, neurri handi batean behintzat, orain artean ere. Eskolak gazteak euskalduntzen bazituen, belaunaldi berriek gizartea modu naturalean euskaldunduko zutela pentsatuz lan egin izan da batzuetan. Eta ondoren, esperotakoa esperotako epeetan gertatu ez denean kezka nagusitu da”. (Soziolinguistika Klusterra, 2011).

3.5. EUSKARA ETA HEZKUNTZA

Aurreko parrafoetan esan bezala, gazte hauek jendarteko esparru guztietan egongo dira etorkizunean. Horren ondorioz, hezkuntzan ere gaur egungo hainbat gazte egongo dira belaunaldi berriak hezten.

Gazteen artean jasotako emaitzak gazi-gozaok dira, izan ere, azken urteetan hiztun kopurua igo da, baina ez da esperotakoa bete. Gaur egungo, gazte elebidunek euskararen ezagutza badute, baina erabiltzeko orduan datoz arazoak. Ezagutza eta erabilera desberdinak dira, baina lotura estua dute aldi berean. Euskaraz hitz egiteko ohitura edota joera duenak euskara maila hobea du, orokorrean, erabiltzen ez duenak baino.

Hori dela eta, konklusioa oso sinplea da. Esan bezala, gaur egungo gazte batzuk etorkizunean irakasle izango dira. Gazte hauen artean, euskara maila eta erabilera eskasa bada, etorkizuneko irakasle batzuen ere horrelakoa izango da. Horren ondorioz, haurrek jasoko duten inputa ez da izango batere ona, eta beraiek euskalduntzeko prozesuak ere ez ditu fruitu onak emango, ez behintzat eskolako testuinguruari erreparaturik.

3.6. ETORKIZUNEKO IRAKASLEEN HIZKUNTZA-OHITURAK

2019ko abenduan, Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean, testuinguru informaletako euskararen erabilera aztertu zuen EAEko fakultate desberdinetan.

Hurrengo lerroetan, hezkuntzarekin loturiko EHUko fakultateetan jasotako emaitzak ageri dira, etorkizunean irakasle izango diren euskara erabilera neurtzea eta ezagutzea funtsezkoa baita. Aipagarria da, nahiz eta datu zehatzak ez izan eskura, gehiengoak D ereduan diharduela.

Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateari dagokionez, %40,4ak egiten soilik euskaraz, gaztelaniaz egiten duen %59,6aren aurrean. Gainera, ikasleen artean %37,4ak bakarrik erabiltzen du euskara.

Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateari erreparatuz, nahiz eta tarte txikiagoa izan, gaztelania gailentzen da. %45,4ak euskaraz egiten du hitz, %53,5ak, berriz, gazteleraz eta %1,2ak beste hizkuntza batean. Euskara erabiltzen duten ikasleak %45,6 dira.

Azkenik, Bilboko Hezkuntza Fakultatea dugu, bertan kokatzen dira euskararen erabilerari dagokionez emaitza txarrenak. Bakarrik %12,1ak egiten du hitz euskaraz, gaztelaniaz, aldiz, 87,5ak egiten du eta %0,5ak beste hizkuntza batean. Ikasleen joerari erreparatuz, %11ak erabiltzen du soilik euskara.

4. HELBURUAK

Behin ikerketan kokatzeko marko teorikoarekin amaituta, ikerketa honekin lortu nahi diren helburuak zehaztuko dira. Ondorengo hauek dira:

- Etorkizuneko irakasleen profil linguistikoak ezagutzea, hala nola, beraien hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-ideologia, hizkuntza-esparruak, hizkuntza-tituluak, euskara maila eta abar.
- Irakaslegaien hizkuntza-ohiturak ezagutzea, antzekotasunak nahiz desberdintasunak ezagutzea eta horiek zergatik ematen diren ondorioztatzea.
- Irakaslegaien euskararenganako duten ideologia eta euskarari ematen dieten garrantzia ezagutzea. Honekin batera, euskararenganako duten motibazioa eta sentsibilizazioa ezagutzea.
- Irakaslegaien hizkuntza-tituluak eta iritziak kontuan hartuta, euskara eta atzerriko hizkuntzen inguruko hautemateak ezagutzea eta emaitzak konparatzea.

- Irakaslegaiak beraien buruarenganako duten pertzepzioa ezagutzea, oro har, beraien euskalduntasuna eta euskal kulturzaletasuna ezagutzea.
- Unibertsitatearen aldetik, irakasleen prestakuntzan euskalduntasuna eta euskaltzaletasuna bermatzeko ezer egiten den aztertzea.

5. METODOA

5.1. ERABILITAKO TRESNA

Aurretik azaldutako helburuak betetzeko, tresna gisa galdetegi bat erabiltzea pentsatu da (1. eranskina). Galdetegia metodologia mistoan oinarritzen da, hau da, ikerketa kuantitatiboan eta kualitatiboan. Ikerketa kuantitatiboak paradigma positibista barnebiltzen du eta honetan, datuak objektiboak izango dira, galdetegia beteko duenaren funtzioa pasiboa izango delarik. Ikerketa kualitatiboak, aldiz, paradigma interpretatzaile zein kritikoa hartzen ditu bere gain eta honetan galdetegia beteko duenaren funtzioa erabat aktiboa izango da, testuinguruaren zein bilatzen ari den ideiarengatik etengabeko hausnarketa prozesua eskatzen baitu (Flick, 2015).

Metodologia hau ikerketa objektiboaren eta subjektiboaren konbinaziotik haratago doa, metodoaren eta epistemologiaren arteko desorekan beste balio bat lortzea du helburu. Metodologia mistoa hirugarren metodologia gisa ulertzen da, tradizio positibista eta interpretatzailearen arteko paradigma berri moduan hartzen da. Tashakkori-k eta Creswell-ek horrela definitzen dute metodo mistoa:

“Una investigación en la que el investigador recoge y analiza datos, integra los hallazgos y perfila inferencias usando ambas aproximaciones, cuantitativas y cualitativas, tanto en un simple estudio como en un programa de investigación más general.” (Tashakkori eta Creswell, 2007).

Galdetegia hiru zati edo bloketan banatu da: Lehen zatia ikaslearen profila zertxobait ezagutzeko da, datu deskriptiboetan oinarritutako galderez osatua, hala nola, bere adina, ikasten ari den gradua, bizi den probintzia eta herri mota ezagutzeko. Zati hau 1, 2, 3 eta 4 galderek osatzen dute. Generoaren harira, ez galdetzea erabaki da, ez baita garrantzitsua ikerketa hau aurrera eramateko. Bigarren zatian, hizkuntzarekin, batez ere euskararekin, loturiko galdera objektiboak sartzen dira, beraien euskararekiko, gaztelarekiko edota atzerriko hizkuntzekiko ezagutzaz eta erabileraz jabetzeko. Zati hau 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 12 galderek osatzen dute. Azken zatiak, lehen aipatu bezala, ikerketa subjektiborako bidea hartzen du. Euskararekiko duten sentsibilizazioa, afektibotasuna eta motibazioa ezagutzeko dago diseinatuta zati hau. Azken zati hau 13, 14, 15, 16, 17, 18 eta 19 galderek osatzen dute.

5.2. PARTEHARTZAILEAK

Galdetegi hau bete duten pertsonak Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle batzuk izan dira, hain zuzen ere, 4. mailako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak. Ikasle horiek euskarazko lerroan gauzatu dituzte unibertsitate ikasketak, noski, etorkizunean ikastetxe euskaldunetan egongo diren irakasleen profila ezagutu nahi baita. Esan beharra dago, pertsona hauen anonimotasuna bermatu dela eta ateratako datuak soilik ikerketa hau gauzatzeko erabili direla. Guztira 63 ikaslek hartu dute parte.

5.3. PROZEDURA

Lehen azaldu bezala, galdetegi honen xede nagusia etorkizuneko irakasleen profil linguistiko desberdinak ezagutzea da, bereziki euskararekiko harremanari lotuta. Horretarako, hasteko, galdetegi diseinatu da. Lehendabizi, ikerketaren helburuak behatu eta ideia (galdera) zaparrada bat egin da. Ondoren, galdera horien gainean hausnartu da, horrek zuzenketa prozesu bat ekarri du, eta galdera batzuk kendu, beste batzuk gehitu eta beste batzuk garatu egin dira. Azkenik, 19 itaunez osatutako galdera-sorta bat osatu da.

Galdetegi pasatu ahal izateko Practicum III-ko mintegiak erabili dira. Mintegi hauek hirugarren praktikaldia aurrera eramateko funtsezko tresna dira. Horretarako, irakasle desberdinekin hitz egin da galdetegi zabaltzeko, beraien prestutasuna ezinbestekoa izan da guzti hau aurrera eramateko.

6. EMAITZAK

Atal honetan etorkizuneko irakasleek bete duten inkestaren emaitzak dira. Horrez gain, emaitza horien analisiak ageri dira, blokeak.

1. BLOKEA

Lehenengo blokean, etorkizuneko irakasle hauen profilak ezagutuko dira, beraien ezaugarri pertsonalak, hala nola, adina, ikasten ari diren gradua eta zein probintzian eta herri motatan bizi diren. Horretarako, jarraian ageri diren lau galderak erabili dira.

EMAITZAK

1. Zenbat urte dituzu?


Etorkizuneko irakasleen profilak ezagutzen hasteko ezinbestekoa da beraien adinaren berri izatea. Hona hemen emaitzak:

ADINA	KOPURUA	EHUNEKOA (%)
21 urte	33	52,4
22 urte	12	19
23 urte	4	6,3
24 urte	7	9,5
25 urte	2	3,2
26 urte	2	3,2
28 urte	1	1,6
37 urte	1	1,6
43 urte	1	1,6

Goiko taulan ikusten den bezala, erdiak baino gehiagok 21 urte ditu, 33 pertsonak (%52,4), hain zuzen ere. Horrez gain, 22 urteko 12 (%19) ikaslek ere parte hartu dute, baita 23 urteko 4k (%6,3) ere. Hori gutxi balitz, 24 urteko 7 ikaslek (%9,5) ere bete dute galdetegia, eta 25 eta 26 urteko bik ere bai (%3,2 kasu bietan). Amaitzeko 28, 37 eta 43 urteko ikasle banak ere parte hartu dute (%1,6 kasu guztietan).

2. Zein gradu ari zara ikasten?


Beraien profila ezagutzen jarraitzeko ikasten ari diren graduaren inguruan galdetu zaie.



Galdera honetan soilik bi aukera posible egon dira, Haur Hezkuntzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradua, hain zuzen ere. Honen aurrean, inkesta bete dutenen artean 35 (%55,6) izan dira HHkoak eta 28 (%44,4) LHkoak.

3. Zein probintzian bizi zara?


Etorkizuneko irakasle hauen jatorria ezagutzeak ere zeresana dauka ikerketa honetan, hizkuntzarekiko errealitate desberdinak aurkitzen direlako probintzia desberdinetan.



Galdera honen erantzunak ikusterakoan Euskal Herriko lau probintzia ageri dira, hala nola, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa. Honek esan nahi du ez dagoela Ipar Euskal Herriko ikaslerik. EAEko ikasleak nahiko orekatuta daude, izan ere 18 bizkaitar (%28,6), 22 gipuzkoar (%34,9) eta 21 arabar (%33,3) daude. Nafarrak, berriz, bakarrik 2 (%3,2) daude.

4. Zein herri motatan bizi zara?

Galdera honetan etorkizuneko irakasle hauek, zein herri motatan bizi diren adierazi dute, biztanleriaren arabera. Badaezpada, datuak eman zaizkie bizi diren herria edo hiria mota batean edo bestean sartu ahal izateko. Motak hurrengo hauek izan dira: Herri txikia (0-5.000 biztanle), herri ertaina (5.000-20.000 biztanle) eta herri handia edo hiria (20.000 biztanletik gora).



Goiko grafikan ikus daitekeen bezala, gehienak hiritarrak dira, inkesta bete duten 63 pertsonetatik 36 (%57,1), hain zuzen ere. Herri ertainetakoak 16 (%25,4) izan dira eta herri txikietakoak, berriz, 11 (%17,5).

ANALISIA

Lehenengo blokean, inkesta bete dutenen profilak ezagutzerako orduan, argi ikusi da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasten ari diren ikasle gehienak batxilergoa amaitu eta jarraian sartu zirela gradu horietan. Horrez gain, 23 eta 24 urteko zenbait ikasle ere bete dute, horrek esan nahi du Haur Hezkuntzako Lanbide Heziketa egin duten zenbait ikasle ere badaudela. Hori gutxi balitz, 37 eta 43 urteko ikasle banak ere parte hartu dute galdetegian. Honen harira, nahiz eta gaztetasuna nozio konplexua izan, zenbait ikerketek dioten bezala, 34 urte betetzerakoan pertsonak gazte izateari uzten diote (Lopez eta Segado, 2012). Horren ondorioz, esan daiteke etorkizunean irakasle izango diren inkesta bete duten gazteak 61 izan direla, %96,8a hain zuzen ere. Nahiz eta datuak horiek izan, beste bi norbanakoak ere etorkizunean irakasleak izango dira, horren ondorioz, kontuan hartu dira emaitzak islatu eta analizatzerako orduan.

Aurretik esan bezala, Haur Hezkuntzako Graduak 35 ikasle eta Lehen Hezkuntzako Graduak 28 ikasle parte hartu dute galdetegi honetan. Bi errealitate eta testuinguru berdina eta desberdina dira aldi berean, izan ere, alde batetik, bi graduetatik irtengo dira etorkizuneko irakasleak, horren ondorioz bietako datuak dira erabilgarriak. Bestetik, pertzepzio, iritzi edota erantzun desberdina egon ahal dira bi graduetan. Hori dela eta, oso aberasgarria eta positiboa izan da bi graduen presentzia izatea, eta

gainera, aldi berean, gutxi gorabeherako oreka bat mantentzea bi graduetakoko ikasleen kopuruan.

Horrez gain, bizi diren probintziaren inguruan galdetzerako orduan, EAE erabat gailendu da gainontzeko probintzien aurrean. Horrek esan nahi du, Nafarroak duen presentzia EAeko unibertsitateetan nahiko baxua dela. Bestalde, ez da egon Ipar Euskal Herriko parte hartzailearik, eta horrek esan nahi du, Nafarroaren presentzia baino oraindik baxuagoa dutela Lapurdik, Zuberoak eta Behe Nafarroak Euskal Herriko Unibertsitatean.

2. BLOKEA

Etorkizuneko irakasleen profilak ezagutu ostean, pixkanaka ikerketaren mamian sartzen hasiko gara. Bigarren bloke honetan beraien profil linguistikoa ezagutuko da; euskararekiko, gaztelerarekiko edota atzerriko hizkuntzekiko ezagutzaz, erabileraz eta esperientziaz jabetzeko beste zenbait galdera ageri dira.

EMAITZAK

5. Zein hezkuntza-eredutan ikasi duzu?

Galdera hau hainbat zatitan banatu da, izan ere hezkuntza alorrean hainbat fase edota etapa egoten dira. Horren ondorioz, fase edota etapa bakoitzean zein hezkuntza-eredutan ikasi duten galdetu da. Hona hemen erantzunak:

ETAPA	D EREDUA	B EREDUA	A EREDUA
HAUR HEZKUNTZA	54 ikasle	9 ikasle	0 ikasle
LEHEN HEZKUNTZA	53 ikasle	10 ikasle	0 ikasle
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	55 ikasle	8 ikasle	0 ikasle
BATXILERGOA EDO LANBIDE HEZKIETA	58 ikasle	2 ikasle	3 ikasle


Taula ikuspuntu orokor batetik behatuz argi eta garbi ikusten da ikasle gehienak D ereduan murgilduta egon direla beraien bizitza guztian zehar. Datuak ehunekotan analizatuz:

- Haur Hezkuntzan, D ereduan %85,7a eta B ereduan %14,3a egon da. Bitartean A ereduak ez du izan presentziarik.

- Lehen Hezkuntzan, D ereduan %84,1a eta B ereduan %15,9a egon da. Haur Hezkuntzan bezala, A ereduak ez du presentziarik izan.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, D ereduan %87,3a eta B ereduan %12,7a egon da. Beste bi etapetan bezala, A ereduak ez du presentziarik izan ikasle hauengan.
- Batxilergoan edo Lanbide Heziketan nabarmendu da aniztasun handiena. D ereduan %92a egon da murgilduta, B ereduan %3,1a eta A ereduan %4,7a.

6. Zein da zure ama-hizkuntza?


Pertsonen hizkuntza-ohiturak ezagutzerako orduan, umetatik zein hizkuntzarekin hezi eta hazi diren jakitea ezinbestekoa da. Hona hemen emaitzak:



Goiko grafikan ikusten den bezala, etorkizuneko irakasleriaren erdiak (%50,8) gaztelera du ama-hizkuntzatzat, 32k hain zuzen ere. 29k (%46) beraien ama-hizkuntza euskara izan dela adierazi dute, eta 2k (%3,2) biak izan direla.

7. Nolako elebitasuna duzula esango zenuke?


Hizkuntza-ezagutzarekin jarraituz, elebitasun kontzeptuaren inguruan galdetu zaie, beraien jakintzak ezagutu, behatu eta ondoren, analizatu ahal izateko.



Datuak ikusiz argi eta garbi dago inkesta bete duten guztiak elebidunak direla, erdaldun elebakarra jarri baita aukera bezala eta inork ez du jarri. %54ak elebidun orekatuak direla adierazi dute, 34 pertsonak hain zuzen ere. 19k (%30,1) elebidun euskaldunak direla adierazi dute, eta 10ek (%15,9), berriz, elebidun erdaldunak.

8. Erabilerari dagokionez, hurrengo zein erantzunekin identifikatuko zinateke?


Hizkuntza-ezagutza alde batera utziz, hizkuntza-erabileraren inguruan galdetu zaie, hau da, zenbateko maiztasunean erabiltzen duten hizkuntza bat edota beste bat.



Goian ageri den bezala, %46ak erdaraz euskaraz baino gehiago egiten du hitz, 29 pertsonak hain zuzen ere. %33,3ak, hau da, 21 pertsonak batez ere euskaraz egiten dute hitz. Horrez gain, %14,3ak, hain zuzen ere, 9 pertsonak maiztasun berean erabiltzen dituzte bi hizkuntzak. Amaitzeko, 4 pertsonak batez ere erdaraz egiten dute hitz, beste era batera esanda %6,3ak.

9. Zein esparrutan hitz egiten duzu euskaraz?

Galdera honetan euskara erabiltzen duten esparru edota testuinguru desberdinak adierazi dituzte, horren ondorioz hautabide bat baino gehiago aukeratzeko aukera eman zaie.




Nahiz eta goiko grafikan argi ikusi gutxi gorabehera zein esparrutan erabiltzen duten batez ere euskara eta zeinetan gutxiago, hona hemen datu zehatzak (euskara gehien erabiltzen duten esparrutik gutxien erabiltzen dutenera):

- Ikasketak: 62 pertsonak (%98,4)
- Lagunak: 40 pertsonak (%63,5)
- Musika: 35 pertsonak (%55,6)
- Familia: 30 pertsonak (%47,6)
- Irakurketa: 29 pertsonak (%46)
- Anai-arrebak: 28 pertsonak (44,4)
- Gurasoak: 25 pertsonak (%39,7)
- Telebista: 18 pertsonak (%28,6)
- Irratia: 17 pertsonak (%27)

10. Ba al duzu euskara titulurik? Zein?


Magisteritza ikasketak amaitu ostean, unibertsitateak euskarazko C1 tituluaren baliokidea ematen du. Galdera honen bitartez jakin nahi dena zera da, unibertsitateak emandako tituluaren aurretik, zenbatek duten C1 titulua. Hona hemen emaitzak:



Jasotako datuen arabera 30 pertsonak C1 titulua dute, %48,4ak, hain zuzen ere. Horrez gain, beste 16k B2 titulua daukate, hau da, %25,8ak. 15 pertsonak euskara titulurik ez dutela adierazi dute, hots, %24,2ak. Amaitzeko, pertsona batek ez dakiela adierazi du, %1,6ak. Horrez gain, pertsona batek ez dio galderari behar bezala erantzun.

11. Euskara errefortzurik jaso izan edo jasotzen al duzu?


Euskararekin jarraituz, ea euskara errefortzurik jaso izan edota jasotzen al duten galdetu zaie, esaterako euskaltegia.



Grafikan ikus daitekeen bezala, gehiengoak ez du jaso euskara errefortzurik, soilik %17,5ak jaso du. Ohiko zenbakietan adierazita, 63 ikasletik bakarrik 11 ikaslek jaso dute, beste 52ek, berriz, ez.

12. Ba al duzu atzerriko hizkuntzako titulurik? Zein?

Tituluekin jarraituz, oraingoan euskaraz gain, beste titulurik daukaten jakin nahi izan da. Titulu bat edo gehiago jartzeko aukera eman zaie. Hona hemen emaitzak:



Ikusten den bezala, erdiak baino gehiagok ez du atzerriko hizkuntzako titulurik, 33 pertsonak (%52,4), hain zuzen ere. Ingeleseko B1a soilik pertsona batek duela adierazi du (%1,6), First-a, berriz, 22k (%34,9). Horrez gain, Advanced edota C1 tituludunak 4 izan dira (%6,3), eta C2a dutenak 2 (%3,2). Ingelesa alde batera utziz, frantseseko B2a (%1,6) eta alemaneko A2a (%1,6)duten ikasle bana ere egon da.

ANALISIA

Bigarren blokean zentratuz, argi ikusten da jasotako emaitzek 1983an martxan jarri zen Elebitasunaren Dekretua justifikatzen dutela, batxilergora arte inor ez baita A ereduan murgilduta egon.

Nahiz eta gehienek D ereduan ikasi, ama-hizkuntzak eta herri motak pisu handia dutela nabari da, izan ere testuinguru informaletan erdara euskarari nabarmen gailentzen zaio. %52,3ak erdararen erabilerara jotzen du ohiko egoeretan (%46ak erdaraz euskaraz baino gehiago hitz egiten du eta %6,3ak batez ere erdaraz), are gehiago, soilik %33,3ak hitz egiten du batez ere euskaraz. Horrek esan nahi duena hau da: irakaslegaien edota etorkizuneko irakasleen artean bakarrik 3tik batek hitz egiten duela batez ere euskaraz testuinguru eta egoera informaletan. Erabilera esparruetan ikusten den bezala, egoera formaletan, kasu honetan ikasketetan, denek (batek izan ezik) euskara erabiltzen dute. Baina egoera horretatik itendakoan euskara erabilerak nabarmen egiten du behera. Lagunen artean %63,5ek euskaraz hitz egiten dute eta hori ere azpimarratzeko ezaugarri positibo bat da, egia esan. Musika entzuterako orduan ere %55,6k euskarazko abestiak entzuten ditu. Baina beste esparru guztietan erdiak baino gutxiagok erabiltzen du euskara tresna bezala. Aurretik esan bezala, garrantzizko bi arrazoien ondorioz ematen da egoera hau; alde batetik, irakaslegaietatik %50,8aren

ama hizkuntza gaztelera da, horren ondorioz, beraien haurtzaroan eta nerabezaroan ikastetxeetatik kanpo egon diren momentuetan, gaztelera hezi dira. Bestetik, %57,1a herri handi edota hirietan bizi da, nahiko zentralizatuta dauden herri handi edota hirietan, industrializazioak eta immigrazioak belaunaldiz belaunaldi pisu handia izan duen herri handi edota hirietan. Hori dela eta, herri handi horietan euskararen presentzia oso baxua izan ohi da, gaztelera erabat zapaltzen baitu.

Emaitzak ikertzen eta analizatzen jarraitu ahala, elebitasunaren auzira iritsi da ikerketa hau. Galdetegia bete duten ikasleen %54ak adierazi du elebitasun orekatua dutela, hau da, maila berdinean menderatzen dituztela euskara eta gaztelera, maila berdinean idazteko gai direla, irakurtzeko gai direla, hitz egiteko gai direla, ulertzeko gai direla eta abar. Kontua da, hizkuntzen erabileraren errealitateak erakusten digula egiazko elebitasun orekatua utopikotzat hartzen dela, bi hizkuntzen funtzioen banaketa oso gutxitan izaten baita parekatua. Ia kasu guztietan pertsonengan hizkuntza batek besteak baino funtzio gehiago betetzen ditu, eta inkestaren emaitzek ere hori bera erakusten dute. Horren ondorioz, esan daiteke inkesta bete duten parte hartzaileek ez dutela barneratuta kontzeptu soziolinguistiko hau.

Hizkuntza-tituluetan murgildurik %74,2ak euskara tituluren bat duela adierazi du (%48,4ak C1a eta %25,8ak B2a). Egia da ere batxilergoa amaitu ostean, B2a ematen zaiela ikasleei, horren ondorioz, suposatzen da B2a daukaten %25,8 horietatik gehienek edota ia denek batxilergoaren bidez eskuratu dutela titulu hori. Ingeles tituluei dagokienez, %46ak tituluren bat dauka, ia erdiak. Konparaketa egiteko suposatuko da B2a duten ikasle guztiek batxilergoaren bidez eskuratu dutela titulu hori, hau da, tituluren bat ateratzeko azterketa espezifikorik ez dutela egin edota ez dutela gainditu. Honek esan nahiko luke %48,4ak eskuratu duela azterketa espezifikorik eginez euskarazko tituluren bat (kasu honetan C1a), eta, %46ak ingelesekoren bat. Horren ondorioz, esan beharra dago oso parekatuak direla bi emaitzak eta ez dagoela argi zein hizkuntza den lehentasun jendearentzat. Izan ere, marko teorikoan aipatutako globalizazioaren eraginez, ingelesa hizkuntza internazionala bilakatu da, eta argi eta garbi ikusten da oso garrantzitsua dela Euskal Herriko testuinguru batean ere, are gehiago, esan bezala ez dago argi zein hizkuntza den lehentasun gaur egungo euskal jendartearentzat.


3. BLOKEA

Azken bloke honetan euskararen inguruko galdera subjektiboak ageri dira. Etorkizuneko irakasleen euskararenganako motibazioaren, sentsibilizazioaren edota afektibitatearen inguruko datuak ageri dira. Euskarari buruzko dituzten pertzepzioak eta, oro har, ideologiaren inguruan galdetu zaie.

EMAITZAK

13. Nolakoa da euskararenganako duzun motibazioa?

Galdera honetan euskararenganako motibazioari edota euskara erabiltzearen helburuari buruz galdetu da. Hona hemen emaitzak:



Goiko grafikan ikusten den bezala, 33 pertsonak (%58,7) euskara erabiltzerako orduan duten motibazioa arrazoi sentimentalaren ondorioz dela adierazi dute. Horrez gain, 13 pertsonak (%20,6) gizartean komunikatzeko motibatzen dutela adierazi dute. Amaitzeko, beste 13 (%20,6) pertsonak etorkizuneko norbere prestakuntzarako motibatzen dutela esan dute, esaterako, lanerako.


14. Jarri ezazu zure kokapena baieztapen hauei dagokienez.

Zati honetan baieztapen batzuk ageri dira. Ikasleek beraien iritzia edota kokapena adierazi dute. Horretarako, baieztapen batzuetan *alde/kontra/ez alde ez kontra* aukera izan dute, eta beste batzuetan, berriz, *ados/desados/ez ados ez desados*. Hona hemen emaitzak:


14.1. Euskara sustatu behar da




14.2. Administrazioan euskaraz hitz egin behar da



14.3. Euskara ingelesa baino garrantzitsuagoa da



14.4. Haurrek euskaraz ikasi behar dute




Emaitzek dioten bezala, oreka handiena 3. galderan egon da gainontzeko galderekin alderatuta. Emaitzetan sakonduz hona hemen oinarrizko zenbakietan adierazita:

- 1. galdera: 62 pertsona alde, 0 kontra eta 1 ez alde ez kontra.
- 2. galdera: 60 pertsona alde, 0 kontra eta 3 ez alde ez kontra.
- 3. galdera: 26 pertsona ados, 9 kontra eta 28 ez ados ez desados.
- 4. galdera: 59 pertsona alde, 0 kontra eta 4 ez alde ez kontra.

15. Euskaraldia


Zati honetan *Euskaraldia*-ren inguruko zenbait galdera egin dira. Parte hartzearen inguruan galdetu zaie, parte hartu badute zein modutan parte hartu duten galdetu zaie, eta ez badute parte hartu horren zergatiaren inguruan galdetu zaie. Hona hemen emaitzak:

15.1. Parte hartu al zenuen?




Inkesta bete duten 63 ikasleetatik, 40 (%63,5) ikaslek *Euskaraldia*-n parte hartu zuten, gainontzeko 23ek (%36,5), berriz ez.

15.2. Nola parte hartu zenuen?



Parte hartu zuten pertsonetatik 36k (%92,3) *Ahobizi* gisa parte hartu zuten, beste 3k (%7,7), berriz, *Belarriprest* bezala. Parte hartu zuen batek ez du adierazi zein rol hartu zuen.


15.3. Zergatik ez zenuen parte hartu?



Parte hartu ez zuten pertsonetatik 6k (%30) *Euskaraldia* ez zaiela axola edota ez dietela arretarik pizten adierazi dute, horregatik ez zutela parte hartu. Beste 3k (%15) ez daudela ados eta euskara sustatzeko beste estrategia batzuk erabili behar direla adierazi dute. Galdera hau erantzun duen erdiak, hots, 10 (%50) pertsonak izena ematerako orduan berandu ibili zirela adierazi dute. Horrez gain, batek (%5) pasa den urtean parte hartu zuela adierazi du, baina esperientzia ez zitzaiola gustatu oso artifiziala iruditu zitzaiolako, eta horregatik hurrengo urtean ez zuela parte hartu. Amaitzeko, 3 pertsonak ez zuten arrazoirik adierazi.

16. Etorkizunean, irakaskuntzan aritzeko moduko euskara maila duzula uste duzu ala gehiago landu beharko zenukeela uste duzu arlo horretan?


Galdera honekin, pertsona bakoitzak bere euskara mailaren inguruko autokritika edota hausnarketa pertsonal bat egitea bilatu da. Beraien buruari galderak egitea eta beraien ustez ea benetan irakaskuntzan aritzeko moduko euskara maila duten ezagutzea.



Ikusten den bezala, 50 (%79,4) ikaslek irakaskuntzarako euskara maila ona dutela uste dute. Beste 13 (%20,6) ikaslek, berriz, gehiago landu beharko luketela uste dute.

17. Bizi garen testuinguruan euskarak eta euskal kulturak irakaskuntzan garrantzia handia duela uste duzu?


Galdera honetan ere, aurrekoan bezala, ikasleen hausnarketa bilatu da. Gaur egungo testuinguruan euskarak eta euskal kulturak irakaskuntza garrantzia handia duela uste duten galdetu zaie. Hona hemen jasotako emaitzak:



Ikusten den bezala, gehiengoak gaur egun irakaskuntzan euskarak eta euskal kulturak garrantzia duela adierazi du, 55 (%87,3) pertsonak, hain zuzen ere. Gainontzeko 8 (%12,7) pertsonak ezetz adierazi dute.

18. Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako curriculumek diote irakasleek euskaldun eta euskaltzale izan behar dutela. Zure burua euskaldun eta euskaltzaleztat daukazu?

Inork ez du zalantzan jartzen Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako curriculumek irakasleek euskaldun eta euskaltzale izan behar dutela esaten duenik. Horren ondorioz, aurreko bi galderen dinamika jarraituz, hau da, hausnarketa prozesuarekin, ikasleei ea beraien burua euskaldun eta euskaltzaleztat duten galdetu zaie.




Galdera honetan, ia guztiek euskaldun eta euskaltzale sentitzen direla adierazi dute, 60k (%95,2), hain zuzen ere. Gainontzeko 3 (%4,8) ikasleek ezetz adierazi dute, ez dutela beraien burua euskaldun eta euskaltzaleztat.

19. Aurreko galderaren harira, uste duzu ikasten ari zaren graduak ikasleengan bermatzen duela euskaldun eta euskaltzale izatea? Erantzuna ez izatekotan, zergatik?

Galdera honek aurrekoarekin zerikusi zuzena du, baina oraingoan subjektua aldatu da. Lehengo subjektuak galdetegiko parte hartzaileak izan dira, oraingoan, aldiz, ikasten ari diren graduak da. Horren ondorioz, ea ikasten ari diren graduak ikasleengan euskaldun eta euskaltzale izatea bermatzen duen galdetu

zaie, eta erantzuna ezezkoa bada arrazoitzeko eskatu zaie. Hona hemen jasotako emaitzak:



Galdera honen erantzunak behatuz, gutxi gorabeherako oreka bat dagoela ikusten da, izan ere 28 pertsonak adierazi dute ikasten ari diren graduak euskaldun eta euskaltzale izatea bermatzen duela. Gainontzeko 35 pertsonak, berriz, beraien desadostasuna adierazi dute.

Galdera erantzun ostean, desadostasuna adierazi dutenei erantzuna arrazoitzeko eskatu zaie beraien iritzia jakin ahal izateko. Egia esan guztiek ez dute arrazoitu beraien erantzuna orduan ezin izan da jakin desadostasuna adierazi duten ikasle guztien zergatia. Horrez gain, esan beharra dago ikasle batzuk arrazoi edota zergati bat baino gehiago jarri dituztela mahai gainean. Hona hemen irten diren arrazoiak, maiztasunaren arabera:

ARRAZOIA	IKASLEAK
Gradua amaitzerakoan, Eusko Jaurlaritzak C1 titulua ematen die gradua amaitu duten ikasle guztiei. Kontua da zenbait ikasleren euskara maila nahiko eskasa dela, honen ondorioz ez da justua C1 titulua hauei ematea. Horrez gain, euskararekiko duten erabilera ere oso urria da, gaztelera gailentzen baita.	12 ikasle
Irakasleek euskararekiko duten maila eta jarrera batzuetan ez da ona izaten.	5 ikasle
Edukiari garrantzi handiagoa ematen zaio orokorrean euskara mailari baino. Horren ondorioz, erabiltzen den materiala normalean ez da euskaraz izaten.	3 ikasle
Graduak ez du euskaraz hitz egitera motibatzen, izan ere era akademiko batean irakasten da.	3 ikasle
Graduak ez du euskaldun eta euskaltzale izateko sentimendu hori pizten, beste arrazoi batzuen artean euskaraz ikasteak ez duelako bermatzen euskaldun izatea.	3 ikasle
Arreta beste arlo batzuetan jartzen da.	2 ikasle
Fakultateko egoera informal askotan gaztelania nabarmentzen eta entzuten da.	1 ikasle

ANALISIA

Hirugarren eta azken blokean nabarmena da irakaslegai gehienengan euskarak eragiten duen motibazioa arrazoi sentimentalekin lotuta dagoela, izan ere erdiak baino gehiagok hori adierazi du. Horrez gain, %20,6ak gizartean komunikatzeko motibatzen duela adierazi du, honek motibazio integratzailearekin lotura zuzena du, izan ere hiztuntaldearen partaide izateko edo partaideen antza hartzeko nahia dago. Azkenik, beste %20,6ak norbere prestakuntza pertsonalerako motibatzen diola adierazi du. Honako hau motibazio instrumentalarekin lotzen da, euskara kasu honetan baliabide instrumental gisa hartu eta onartzen delako. Hizkuntza arrakastarekin, bizi-kalitatearekin, gizartean gora egiteko aukerekin eta abarrekin lotzen da.

Euskararen sustapenari, administrazioan euskaraz hitz egiteari eta hurrek euskaraz ikasteari dagokionez, ia irakaslegai guztiak auzi hauen alde kokatu dira. Auzi hauekin batera, "Euskara ingelesa baino garrantzitsuagoa da" baieztapena ere egon da. Kasu honetan, berriz, erantzunen artean aniztasuna egon da, izan ere %41,3ak adierazi du bere adostasuna. %14,3a ez da egon ados baieztapen honekin, eta gainontzeko %44,4a ez da egon ados ez desados. Honen aurrean, bigarren blokean atera den

konklusioa azpimarratu behar da; euskal jendarte gaztearen artean ez dago argi zein hizkuntza den lehentasuna.

Azpimarragarria da ere inkesta bete duten irakaslegaietatik 40k *Euskaraldia*-n parte hartu zutela, eta gainera, 10 berandu ibili zirela izena emateko garaian. Horrek esan nahi du 63 irakaslegaietatik 50, behintzat, *Euskaraldia*-ren alde kokatzen direla. Bestalde, hiruk nahiz eta ez parte hartu, beste estrategia batzuk erabili behar direlako ez zutela parte hartu adierazi dute, eta beste batek aurreko urtean parte hartu zuela baina ez zitziola esperientzia gustatu. Horren ondorioz, argi dago 50 ikasle baino gehiago direla euskararen aldeko apustu egiten dutenak, 14.1. galderan ikustea besterik ez dago bestelan.

Euskara mailari dagokionez, ehuneko handi batek (%79,4k) beraien ustez irakaskuntzan aritzeko moduko euskara maila duela adierazi du.

Horrez gain, gehienek euskarak eta euskal kulturak irakaskuntzan garrantzia handia duela eta euskaldun eta euskaltzale sentitzen direla adierazi dute. Argi geratu da jarrera aldetik, euskara eta euskalduntasunaren aldeko apustu egiten dutela eta euskal kulturarekiko sentsibilizazioa eta afektibitatea dutela.

Amaitzeko, ea unibertsitateak beraiek euskaldun eta euskaltzale izateko zerbait egiten duen galdetu zaie. Honen aurrean erdiak baino apur bat gehiagok ezetz (%55,6) esan dute, eta gainontzekoek, baietz (%44,4). 12 ikaslek, beste ikasle batzuek duten euskara maila kaskarra salatu dute, gradua bukatutakoan unibertsitateak C1 titulua ematen diela eta zenbait ikasle, beraien ustez, ez direla titulu hori jasotzeko behar besteko euskara mailara iristen adierazi dute. Horren ondorioz, unibertsitateak gutxieneko exigentzia batzuk jarri beharko lituzkela esanez borobildu dute beraien iritzia. Horrez gain, beste 5 ikaslek irakasle batzuen euskara maila eskasaren inguruko apologia ere egin dute, eta eredu diren heinean maila hobea izan beharko luketela azpimarratu dute. Zenbait ikaslek graduak ez duela euskaltzaletasun sentimendua pizten adierazi dute, ezta euskaraz hitz egitera motibatzen ere, eta arreta beste toki batzuetan jartzen dela helarazi dute. Eduki eta material asko ere gaztelaraz izaten direla azaldu da zergatia batzuetan, eta azkenik, fakultatean zehar gaztelera modu ugarian entzuten dela ere. Hori dela eta, esan bezala, ikasleriaren erdiak baino gehiagok unibertsitateak beraiek euskaldun eta euskaltzale izateko eta sentitzeko ez duela gauza handirik egiten azpimarratu dute, eta horren aurrean, aldaketa edota birmoldaketa bat egon beharko litzatekela.

7. ONDORIOAK

Egindako ikerketaren ostean, argi eta garbi gelditu da jarrera eta ideologia aldetik etorkizunean irakasle izango diren Hezkuntza eta Kirol Fakultateko euskarazko lerroko ikasle gehienek euskararen aldeko kokapen positibo bat dutela. Hori gutxi balitz, arestian aipatu bezala, euskaldun eta euskaltzale sentitzen dira eta euskal kulturarekiko afektibotasuna eta sentsibilitatea dute.

Horrez gain, gehienek ustez irakaskuntzan aritzeko besteko euskara maila dute. Horren aurrean, galdera hau da: Zein da irakaskuntzan aritzeko behar den maila? Kontu hori oso subjektiboa da, irakaskuntzan aritzeko behar besteko maila oso erlatibizatuta baitago. Argi dagoena zera da, irakaslegaien erdiak erdara euskara baino gehiago erabiltzen dutela orokorrean. Bestalde, fakultateko irakasleren batekin izandako elkarrizketen eta ikaskide zenbaitengan ikusitako profil linguistikoaren ondorioz, gradua bukatzerakoan ikasle askok ez daukatela euskarazko C1 maila ondorioztatu daiteke.

Hizkuntzaren erabilera puntu biren arteko joan-etorria da: batetik, gizakiaren burmuinean kokatzen den ezagutza, bestetik, gizakiaren gorputzaz kanpoko hizkuntza-forma (Laka, 2011). Horren ondorioz, esan daiteke hizkuntza mailak eta erabilerak lotura zuzena eta estua dutela. Hizkuntza bat gero eta gehiago erabiliz eta norbere egunerokotasunean maiztasun handian egonez gero, hizkuntza-ezagutzak ere hazkundera izango du. Hori dela eta, erdaraz euskaraz baino gehiago egiterako orduan, eta diglosia hori isladatzerako orduan, gaztelerak euskara zapaltzen du etengabe. Kontuan hartuta inkesta bete duten ikasle askok ez dutela euskara egunerokotasuneko eremu informalean erabiltzen, oso litekeena da hori hizkuntza maila apal baten adierazle izatea.

Honekin esan nahi dena zera da, herri erdaldun batean bizi den eta ama-hizkuntza erdara duen, eta gainera, erdara euskara baino gehiago erabiltzen duen pertsona batek beharbada ez duela irakaskuntzan euskaraz aritzeko behar besteko mailarik. Honekin batera, irakasle horrekin egongo den haurrak ez du input egokia jasoko, ez behintzat euskara aldetik, orduan zailtasun gehiago izango ditu bere heziketa-prozesuari dagokionez. Zentzu honetan, unibertsitateak badu guzti honetan erantzukizunik, eta zerbait gehiago egin lezake irakaslegaien euskara prestakuntzari dagokionez, ikasleen euskalduntasuna eta euskaltzaletasuna bermatze aldera.

Esandakoak esanda, berriz ere lehen azaldu den aferara itzuli nahi da. Etorkizuneko irakasle gehienek jarrera aldetik euskararen aldeko apustua egiten dute. Ondorioz, jarrera hori praktikan jartzea izango litzateke soluzioa. Wittgenstein filosofo austriarrak esaten zuen bezala, hizkuntza lanabes kutxa bat da. Hizkuntza horrek

errealitatea eraikitzen du hizkuntzaren beraren jokoan bitartez eta horietako bakoitzaren tresnen bitartez; hortaz, praktikaren bitartez (Blasco, 2008). Hori dela eta, etorkizuneko irakasleek gaur egun duten euskararen aldeko jarrera hori baliatuz, praktikan jarritz, egunerokotasunean erabiliz, eta erabilera horren ondorioz maila hobetuz lortuko litzatekeen emaitza euskal irakaskuntzaren etorkizunerako giltza edota klabea izango litzateke.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lanaren azken produktua ikusita, esan beharra dago hobekuntza batzuk identifikatu direla, hain zuzen ere galdetegia egiterako orduan.

Hasteko, 63 ikasleko laginarekin atera dira ikerketa honen emaitzak. Honen aurrean, argi eta garbi dago inkesta edota galdetegiko lagina gero eta zabalagoa izan, hau da, zenbat eta ikasle gehiagok parte hartu, emaitzak fidagarriagoak izango liratekeela. Egia da ere, gaur egun COVID-19aren ondorioz, oztopo handiak egon direla ikasleengana heltzerako orduan. Horregatik, ez litzake batere gaizki egongo horrelako oztoporik ez dagoen momentuan berriz ere ikerketa hau martxan jartzea eta ikasle gehiagorengana heltzea.

Galdetegiko galderetan zentratuz, lehen galderari erreparatuz, ikasleei beraien adina adierazteko eskatu zaie. Kasu horretan, egokiagoa izango litzateke jaiotza-urtea adierazteko eskatzea, izan ere, adibidez, 22 urteko pertsona bat 1998an edota 1999an jaiotako pertsona bat izan daiteke. Horrez gain, herri mota adierazteko orduan, ondo legoke zehaztapen gehiagorekin adierazteko aukera ematea, eta esaterako, herri handia eta hiria desberdintzea. Kontu honekin amaitzeko, elebitasunaren inguruan galdetu denean gehienek elebitasun orekatua dutela adierazi dute, ohiko kasuetan kontzeptu utopikotzat hartzen den termino bat. Horregatik, galdetu aurretik kontzeptu horren berri ematea egokiena izango litzateke, ondoren ezagutza batzuekin erantzun ahal izateko.

Atal honekin amaitzeko, egokia izango litzateke ikerketa honetaz baliatuz, beste batzuk ere zabaltzea. Alde batetik, interesgarria izan daiteke datorren urtean berriz ere ikerketa berdina egitea, gaur egun 3. mailan dauden laginekin (aipatutako hobekuntzekin) eta ikerketa honekin konparaketa bat egitea. Horrez gain, oso interesgarria izango litzateke Euskal Herri osoko zenbait irakasleri (egokiena 63ri egitea izango litzateke, ikerketa honetan bezala) ikerketa honetako galdetegian egin diren galdera berdinak egitea (aipatutako hobekuntzekin). Eta ondoren, bien arteko konparaketa bat egitea, belaunaldi berrien eta zaharren artean desberdintasunik ba al dagoen eta zertan dagoen jakin ahal izateko.

9. BIBLIOGRAFIA

- Aguirre Eskisabel, J.M. (1994). *Euskararen bilakaera 1981-1991 hamarkadan*. BAT-Soziolinguistika aldizkaria. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.soziolinguistika.eus/files/Jose%20M%C2%AA%20Agirre.pdf>
- Bachoc, E., Pérez de Viñaspre, F. eta Ariztondo, J. (1996). *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II*. Eusko Jaurlaritza, Baztarrika, P., Osa, E., Iriart, J.P. eta Aizpurua, J. (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Beitia, I., Ozaita, J. eta Santamaria, A. (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: Erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Soziolinguistika Klusterra eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Blasco, J.L. (2008, urtarrilaren 17). Wittgenstein: filosofía del lenguaje. . <https://www.coursehero.com/file/71036840/76398-Text-de-larticle-99281-1-10-20080118-1pdf/>
- Coyos, J-B. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua: Hizkuntza-ukipena*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Euskal Estatistika Erakundea. (2018, martxoak 2). *Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleria, hizkuntza-gaitasunaren arabera lurraldeari eta adinari jarraiki. 1991-2016*. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/euskal-herriko-16-urte-edo-gehiagoko-biztanleria-hizkuntza-gaitasunaren-arabera-lurraldeari-eta-adinari-jarraiki/tbl0009564_e.html
- Euskal Kultur Erakundea. (datarik gabe). *Gaurko legezko estatutuak*. 2021eko otsailaren 12an, hemendik berreskuratua: https://www.eke.eus/eu/kultura/euskara/euskararen_historia/legezko_estatutuak
- Eusko Jaurlaritza. (2004). Jatorria: euskara eta antzinatea. *Eusko Jaurlaritza*. Webgune honetatik berreskuratua: https://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/es/contenidos/articulo/c0418/eu_d0418001/0418001.html
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa. (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa.
- Ferguson, C.A. (1959). Diglossia. *Word*.
- Flick, U. (2015). El diseño de Investigación Cualitativa. *Ediciones Morata*.
- Hernandez, J.M. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua: Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarrizko hurbilpena*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- Hudson, R.A. (1981). *La sociolingüística*. Bartzelona: Anagrama.
- Joly, L. eta Uranga, B. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua: Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza,
- Laka, I. (2011). Euskara eta gizakia: Hizkuntzaren prozesamendua. *Sareko Euskal Gramatika*.
- Larrea, I. eta Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua: Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- López, A. eta Segado, S. (2012). La transición de los jóvenes a la vida adulta: Crisis académica y emancipación tardía. Barcelona: *Obra Social "la Caixa"*.
- Martínez, L. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua: Hizkuntzaren aldakortasuna*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- Soziolinguistika Klusterra. (2011). *erabili.eus/ Gazteak eta euskara, nondik nora?* [erabili.eus](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1308211324). Webgune honetatik berreskuratua: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1308211324
- Soziolinguistika Klusterra. (2019). Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait fakultatetan egindako Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa. *Soziolinguistika Klusterra*.

Tashakkori, A eta Creswell, W. (2007). The new era of mixed methods. *SAGE journals*.
<https://doi.org/10.1177/1558689806293042>.
Zarraga, A. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua: Soziolinguistikari sarrera*. Gasteiz:
Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.

10. ERANSKINAK

10.1. GALDETEGIA

Inkesta hau, tituluari agertzen den bezala, 4. mailako ikasleen hizkuntza ohituretan zentratuko da, batez ere euskara ohituretan. Etorkizuneko irakasleek euskararekin duten harremana eta euskara ohiturak ezagutzeko da inkesta hau.

Inkesta hiru zatitan dago banatuta. Hasteko, inkesta beteko duenaren profila ezagutzeko datu deskriptiboen harira galdetuko da. Jarraian, gaian zentratzen hasiko da inkesta, eta honekin batera, inkesta beteko duenari euskararenganako eta beste hizkuntzenganako duen ezagutzaz eta erabileraz galdetuko zaio. Amaitzeko, euskararenganako afektibotasunaren eta sentsibilizazioaren inguruko galdera batzuk egingo dira.

Aipagarria da inkesta honetan jasoko diren emaitzak soilik ikerketa bat egiteko erabiliko direla, eta aldi berean, beteko duten pertsonen anonimotasuna bermatuko dela.

Galderak bizkor erantzutekoak dira, 5-10 minutuko inkesta bat da. Egia esan, asko eskertuko litzake inkesta hau betetzea.

1. ZATIA

1. Zenbat urte dituzu?
2. Zein probintzian bizi zara?
 - a) Araba
 - b) Gipuzkoa
 - c) Bizkaia
 - d) Nafarroa
 - e) Lapurdi
 - f) Zuberoa
 - g) Nafarroa Beherea
3. Zein gradu ari zara ikasten?
 - a) Haur Hezkuntzako Gradua
 - b) Lehen Hezkuntzako Gradua
4. Zein motatako herritan bizi zara?
 - a) Herri txikia (0-5.000 biztanle)

- b) Herri ertaina (5.000-20.000 biztanle)
- c) Herri handia edo hiria (20.000 biztanletik gora)

2. ZATIA

- 5. Zein hezkuntza-eredutan ikasi duzu?
 - 5.1. Haur Hezkuntzan?
 - a) A
 - b) B
 - c) D
 - 5.2. Lehen Hezkuntzan?
 - a) A
 - b) B
 - c) D
 - 5.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan?
 - a) A
 - b) B
 - c) D
 - 5.4. Batxilergoan edo Lanbide Heziketan?
 - a) A
 - b) B
 - c) D
- 6. Zein da zure ama-hizkuntza?
 - a) Euskara
 - b) Gaztelera
 - c) Biak
- 7. Nolako elebitasuna duzula esango zenuke?
 - a) Elebitasun euskalduna. Euskara eta erdara ongi menderatzen ditut, biek in komunikatzeko gai naiz, baina euskara gehiago menderatzen dut.
 - b) Elebitasun orekatua. Maila berdinean menderatzen ditut euskara eta erdara eta biek in naiz gai komunikatzeko.
 - c) Elebitasun erdalduna. Erdara euskara baino hobeto menderatzen dut, baina biek in naiz komunikatzeko gai.
 - d) Erdaldun elebakarra naiz.
- 8. Erabilerari dagokionez, hurrengo zein erantzunekin identifikatuko zinateke?

- a) Batez ere euskaraz hitz egiten dut.
 - b) Euskaraz erdaraz beste hitz egiten dut.
 - c) Erdaraz euskaraz baino gehiago hitz egiten dut.
 - d) Batez ere erdaraz egiten dut hitz.
9. Zein esparrutan hitz egiten duzu euskaraz (aukera bat baino gehiago marka ditzakezu)?
- a) Gurasoak
 - b) Anai-arrebak
 - c) Familia
 - d) Lagunak
 - e) Ikasketak
 - f) Musika
 - g) Telebista
 - h) Irratia
 - i) Irakurketa (artikuluak, aldizkariak, liburuak...)
10. Ba al daukazu euskara titulurik? Zein?
11. Euskara errefortzurik jaso izan edo jasotzen al duzu (esaterako, euskaltegia)?
- a) Bai
 - b) Ez
12. Ba al duzu atzerriko hizkuntzako titulurik? Zein?

3. ZATIA

13. Nolakoa da euskararenganako duzun motibazioa?
- a) Arrazoi sentimentalen ondorioz motibatzen nau.
 - b) Gizartean komunikatzeko motibatzen nau.
 - c) Nire etorkizuneko prestakuntzarako motibatzen nau, esaterako lanerako.
14. EUSKARAREN SUSTAPENA. Jarri ezazu zure kokapena baieztapen hauei dagokienez.
- 14.1. Euskara sustatu behar da.
- a) Alde
 - b) Kontra
 - c) Ez alde ez kontra
- 14.2. Administrazioan euskaraz hitz egin behar da.
- a) Alde

- b) Kontra
 - c) Ez alde ez kontra
- 14.3. Euskara ingelesa baino garrantzitsuagoa da
- a) Ados
 - b) Desados
 - c) Ez ados ez desados
- 14.4. Hurrek euskaraz ikasi behar dute.
- a) Alde
 - b) Kontra
 - c) Ez alde ez kontra
15. EUSKARALDIA. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra Euskaraldia jarri zen martxan. Honen harira, erantzun galdera hauek.
- 15.1. Parte hartu al zenuen?
- a) Bai
 - b) Ez
- 15.2. Aurreko erantzuna “Bai” izatekotan, nola hartu zenuen parte?
- a) Ahobizi
 - b) Belarriprest
- 15.3. Aurreko erantzuna “Ez” izatekotan, zergatik ez zenuen parte hartu?
- a) Ez zait axola / Ez dit arretarik pizten.
 - b) Ez nago ados, euskara sustatzeko beste estrategia batzuk erabili behar dira.
 - c) Berandu ibili nintzen izena ematerako orduan.
 - d) Beste bat...
16. Etorkizunean, irakaskuntzan aritzeko moduko euskara maila duzula uste duzu ala gehiago landu beharko zenukeela uste duzu arlo horretan?
- a) Bai, maila dut.
 - b) Gehiago landu beharko nuke.
17. Bizi garen testuinguruan euskarak eta euskal kulturak irakaskuntzan garrantzia handia duela uste duzu?
- a) Bai
 - b) Ez

18. Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumek diote irakasleek euskaldun eta euskaltzale izan behar dutela. Zure burua euskaldun eta euskaltzaletzat daukazu?

a) Bai

b) Ez

19. Aurreko galderaren harira, uste duzu ikasten ari zaren graduak ikasleengan bermatzen duela euskaldun eta euskaltzale izatea? Erantzuna ez izatekotan, zergatik?